

2014KO AZAROAREN 13KO EBAZPENA, GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAREN KONTRATAZIO MAHAIARENA, PAGOETA NATURA PARKEKO ITURRANAN PARKETXEAREN (AIA) DINAMIZAZIORAKO ETA ARRETA ZERBITZUA EMATEKO 004/2010 KONTRATUA ESLEITZEN DUENA

ONDORIOZ: Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren Patronatoak 2014ko irailaren 24n adostu zuen Aiako Pagoeta Natura parkeko Iturraran interpretazio zentroaren (Parketxea) dinamizaziorako eta oinarrizko arreta zerbitzua emateko 004/2014 espedientea onartzea, prozedura ireki bidez esleitzeko, gehienez 100.000 euroko aurrekontua xedatuta, eta Fundazioak zehaztutako administrazio klausulen plieguen eta baldintza teknikoen agiriaren arabera.

ONDORIOZ: Kontratua, dituen zenbatekoa eta edukia aintzat hartuta, **2. mailako** kontratu gisa sailkatu zen Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioko Patronatoak 2010eko irailaren 13an onartutako barne kontratazio arauen arabera. Arau horiek Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren webguneetan (<http://www.gipuzkoamendizmendi.net/parketxeak> eta <http://www.parketxesarea.org>) argitaratu ziren. Hala, kontratua, oro har, prozedura negoziatu bidez esleitu ahal izango da, baina baita prozedura ireki bidez ere, Fundazioko Patronatuak, berme eta gardentasun handiagoa lortzeko, horixe erabakitzen badu, hain zuzen, 2014ko irailaren 24n egin zuen bezala.

ONDORIOZ: Lizitazio-deialdia, administrazio-klausulen pieguak eta baldintza teknikoen agiria 2014ko irailaren 29n argitaratu ziren Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren webgunean (<http://www.gipuzkoamendizmendi.net/parketxeak> eta <http://www.parketxesarea.org>) eta iragarkia ikusgai dago oraindik ere, kontratazio 12. barne arauetan zehaztutakoa betez, eta sektore publikoko kontratazio legearen testu bateratuaren 159. artikuluan ezarritakoaren arabera.

ONDORIOZ: Proposamenak aurkezteko epea 2014ko urriaren 20n amaitu zen. Honakoak dira jaso direnak:

- ARRETA PAGOETA SLL-k proposamena aurkeztu zuen 2014ko urriaren 17n.

ONDORIOZ: Kontratazio mahaia, Roke Akizu Aizpiri jauna (Patronatuaren presidenteordea) buru zuena eta Luis María Zaldúa Etxabe jauna (Fundazioaren zuzendaria) mahaikide zituena eta Alfonso Acarreta Rodríguez jauna idazkari (hitz egin bai, baina bozkatze eskubiderik ez zuena) gisa zuena, 2014ko azaroaren 5n bildu zen, aurkeztutako proposamenak aztertu, ikuskatu eta baloratzeko.

KONTUAN HARTU DUTE: Kontratazio mahaia, proposamena aztertu ondoren, ARRETA PAGOETA SLL-ri kontratua esleitzea proposatu du, enpresa horren proposamena egokia delako, ikuspegi teknikoari eta kalitateari dagokionez, behintzat, fundazioaren nahiak betetzeko.

Erreferentziatzeko espedienteak dituen pleguak, jasotako dokumentazioa, aipatutako xedapenak eta aplikazio orokorreko gainerako kontuak aztertu dira.

EBATZI DUT:

LEHENDABIZI- ARRETA PAGOETA SLL (IFZ: B-20879045) erakundeari esleitzea 004/2014 zenbakidun kontratazio espedientea, Aiako Pagoeta Natura parkeko Iturraran Parketxearen dinamizazioa eta oinarritzko arreta zerbitzua kontratatzeko. Esleipenaren zenbatekoa guztira, 99.927 eurokoa da, BEZ barne.

BIGARRENA.- Sektore publikoko kontratazio legearen testu bateratuaren 151. eta 153. artikuluetan adierazitakoaren arabera, interesatuek kontratazio mahaia eskatu ahal izango diote proposamenak baztertzeko erabilitako arrazoiei buruzko informazioa, hala nola esleipena jasotzeko erabakigarriak diren ezaugarrien ingurukoa.

HIRUGARRENA.- Honako ebazpena jakinaraziko zaie interesatuei eta kontratazio organoaren profilean argitaratuko da (<http://www.gipuzkoamendizmendi.net/parketxeak> eta <http://www.parketxesarea.org>), sektore publikoko kontratazio legearen testu bateratuaren 53. eta 151. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Donostian, 2014ko azaroaren 13a.

Alfonso Acarreta Rodríguez
Kontratazio mahaiko idazkaria



Roke Akizu Aizpiri
O. E. Mahaia burua

